

Agiri-mota / Tipo de documento:	Osoko zuzenketa / Enmienda a la Totalidad
Data / Fecha:	2014-12-01
Nori zuzendua / Dirigido a:	BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente:	Markel Olano Arrese
Batzarkide taldea / Grupo juntero:	Eusko Abertzaleak / Nacionalistas Vascos

IZENBURUA / TÍTULO

Enmienda a la Totalidad al proyecto de Norma Foral por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2015.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK / MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES

El proyecto de presupuestos es la herramienta fundamental de la que dispone el Gobierno Foral para articular su planteamiento político con respecto al siguiente ejercicio. Es por lo tanto fundamental que dicha herramienta se adecúe a las necesidades del territorio de Gipuzkoa, para responder a las necesidades existentes en el Territorio.

El Grupo Juntero Eusko Abertzaleak ha realizado un análisis del proyecto presentado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, y realiza algunas de las principales consideraciones:

Con respecto al **ámbito económico**, es indispensable realizar un diagnóstico de la situación actual: con una economía en “stand by”, con tres trimestres consecutivos creciendo a un ritmo muy lento (no llegamos al 1% de promedio en el conjunto de los tres trimestres de este año), siendo éste incluso inferior al del conjunto de la UE, que ha crecido cerca del 1,2% en ese mismo período, estamos sumidos en la parte baja del ciclo económico, con una crisis que dura ya seis años completos.

En cuanto al sector industrial, los datos de producción industrial del Eustat confirman que la producción ha subido un 1,7% en el conjunto de los tres trimestres, con respecto a igual período de 2013, lo que muestra que no hemos despegado a la zona de crecimiento real.

El sector exportador no llega a un crecimiento de un 3% con los datos acumulados a agosto.

En términos de ocupación y empleo, en lo que va de año, y con los datos a 31 de octubre, observamos que en Gipuzkoa hay 815 personas paradas más que a comienzos de año, con 47.247 personas engrosando las listas de Lanbide. El número de personas ocupadas cotizantes a la seguridad social alcanza a 31 de octubre último la cifra de 294.412 altas, lo que supone que hay una ocupación superior en 1.003 personas a la habida a 31 de diciembre de



2013. Año de estabilidad en cuanto a ERES, que en su acumulado a septiembre alcanzan 482 expedientes en Gipuzkoa y que han afectado a 4.976 personas.

Sin pretender extender los datos estadísticos podemos señalar que esta situación de nulo crecimiento se está prolongando excesivamente en esta etapa en la que la economía europea tampoco empieza a despegar y tampoco existe en perspectiva una previsión de crecimiento en 2015, en el que Europa no va a llegar a un crecimiento del 1%. Estamos afectados, ya que nuestra economía es absolutamente dependiente de la evolución de estos mercados.

Esta situación que persiste hace hoy más importante que nunca la continuidad en profundizar en los esfuerzos por limitar los efectos de la crisis, y plantear una infraestructura productiva mejor para el futuro.

En este sentido, consideramos que las dotaciones de los programas de promoción económica y empleo deben ser una prioridad, y no lo son en este proyecto de presupuestos. Estos últimos años de la legislatura se han incorporado partidas puntuales para la promoción económica y el empleo, en un ejercicio de negociación para intentar “salvar los muebles”. Sin embargo, a estas alturas de la legislatura, en la que la oposición se ha visto obligada a aprobar sendas normas forales de promoción económica y empleo, por la nula capacidad e interés del gobierno foral de liderar un planteamiento integral a este respecto, el proyecto de norma foral sigue sin articular un planteamiento para responder a la situación económica que vivimos.

Tampoco ha incorporado las directrices que rigen las dos recientes normas forales de promoción económica y empleo aprobadas en las Juntas Generales de Gipuzkoa. Las citadas directrices marcan como prioridad la inversión empresarial y como protagonistas a las empresas industriales y principalmente exportadoras. Dicha apuesta, en una segunda fase, producirá una mayor actividad de la industria auxiliar y de los servicios relacionados con la industria, para pasar en una tercera etapa a movilizar los sectores de consumo. Así se define la estrategia principal para el impulso de la economía de Gipuzkoa. Nada de ello se define en el proyecto de presupuestos. No se trata únicamente de incapacidad y de ineficacia en la gestión; se trata también y fundamentalmente de falta de voluntad política de Bildu, para que la institución que gobierna se convierta en una herramienta eficaz para hacer frente a la crisis que vivimos.

Por lo tanto, el proyecto de presupuestos no cuenta con una planificación económica integral: sus líneas de proyectos responden a una pura improvisación, sin establecimiento de prioridades. Se trata de un ejemplo de descoordinación, con un gobierno en el que compiten entre sí el departamento de “Innovación, Desarrollo Rural y Turismo”, y la dirección de “Desarrollo Territorial” del gabinete del Diputado General, con partidas presupuestarias que aun teniendo el mismo objetivo, se reparten en ambos departamentos, sin ningún sentido; fruto todo ello de la desconfianza mutua y de la falta de un liderazgo claro. Más allá de ello, existen excesivas líneas de



subvenciones, con partidas que a pesar de contar con dotaciones presupuestarias importantes, no tienen ningún tipo de definición ni objeto, en un ejercicio de falta de transparencia absoluto.

Con respecto al **ámbito de la movilidad e infraestructuras viarias**, consideramos inaceptable que el proyecto de presupuestos recoja una partida de 8,9 millones de euros para Bidegi, ya que no responde a una necesidad por parte de la citada sociedad. Nadie duda de su solvencia, excepto la Diputación Foral de Gipuzkoa, de manera intencionada, con el fin de utilizarlo políticamente contra su principal adversario político, EAJ-PNV.

No es admisible que la institución foral, con el fin de seguir con su relato, llegue hasta el extremo de transferir una partida de 8,9 millones de euros a Bidegi, cuando no las necesita. Es un ejemplo de irresponsabilidad política mayúscula, en el que demuestran una vez más que se rige por el postureo político, y no por el rigor de sus planteamientos; siendo capaces de dejar de atender necesidades importantes del territorio que se podrían cubrir con esa cantidad presupuestaria importante, con tal de seguir con su estrategia de ataque hacia el adversario político.

Con respecto al **ámbito de la política social**, más allá de la divergencia que mantenemos con el gobierno foral sobre el modelo de gestión de las políticas sociales, y principalmente, por el modo que tienen de intentar cambiarlo por la puerta de atrás, sin debatirlo expresamente en donde corresponde, es decir, en las Juntas Generales, y que hemos tenido ocasión de denunciar durante la tramitación de la norma foral de creación del organismo autónomo KABIA, nos preocupa el empeño de la Diputación teorizar, dejando de lado el servicio que se presta a las personas usuarias. En este sentido, nos preocupa especialmente el aumento de las listas de espera detectadas en las residencias de personas mayores, al que no se hace frente adecuadamente.

Con respecto al **ámbito de la política de gestión de los residuos**, La Diputación Foral de Gipuzkoa no prevé en este proyecto las inversiones previstas en el PIGRUG, y sí recoge en cambio partidas para modificar el Plan Territorial Sectorial de infraestructuras de residuos, en contra de lo dispuesto en la Norma foral 7/2008. Es evidente que la política de gestión de residuos del equipo foral va en contra de la normativa vigente, eliminando la planta de valorización de Zubietza en el proyecto de presupuestos e introduciendo un nuevo vertedero en Zestoa. Todo ello así como las últimas novedades con respecto a los vertederos, ratifican el fraude de ley y el caos en la gestión de residuos en el Territorio.

Para finalizar, las carencias y errores de planteamiento más sustanciales que hemos identificado en el proyecto de presupuestos, son tan importantes, que consideramos necesario que este proyecto de presupuestos sea devuelto al gobierno foral; ya que con este proyecto, fiel reflejo de su planteamiento político de cara al ejercicio 2015, se evidencia una vez más la incapacidad e ineficacia del gobierno foral,



así como su nula voluntad de erigirse en un agente activo para responder a las necesidades del territorio, optando por convertirse en mero instrumento al servicio de sus postulados políticos, y en un obstáculo para el desarrollo del territorio.

EKIMENA / INICIATIVA

Enmienda a la Totalidad del proyecto de Norma Foral por el que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2015.

Bozeramailearen sinadura / Firma portavoz

Markel Olano Arrese

**EUSKO ABERTZALEAK – NACIONALISTAS VASCOS
BATZARKIDE TALDEA**



Agiri-mota / Tipo de documento:	Osoko zuzenketa / Enmienda a la Totalidad
Data / Fecha:	2014-12-01
Nori zuzendua / Dirigido a:	BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente:	Markel Olano Arrese
Batzarkide taldea / Grupo juntero:	Eusko Abertzaleak / Nacionalistas Vascos

IZENBURUA / TÍTULO

Osoko Zuzenketa 2015eko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuen gaineko Foru Arau proiektuari.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK / MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES

Aurrekontuen proiektua foru gobernuak duen ezinbesteko tresna da, hurrengo ekitaldirako bere plangintza politikoa aurrera eramateko. Beraz, ezinbestekoa da tresna hori Gipuzkoako beharrekin bat egitea, behar horiei erantzuteko.

Eusko Abertzaleak batzarkide-taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuaren azterketa egin du eta hona hemen ondorio nagusienak:

Ekonomiaren arloan, ezinbestekoa da egoeraren azterketa egitea: ekonomia bere horretan jarraitzen du eta, beraz, azkeneko hiru hilabeteetako hazkundea oso motela izan da (urte honetako hiru hiruhilekoen hazkundea ez da batezbeste %1era iritsi) eta, hain zuzen ere, Europar Batasunaren hazkundea baino txikiagoa izan da – EBk %1,2 hazi da epe horretan – eta, ondorioz, ekonomia zikloaren behean gaude eta krisialdiak dagoeneko sei urte iraun ditu.

Industriari dagokionez, Eustat-en datuek, hain zuzen ere, industria-produkzioari buruzko datuek, honakoa diote: produkzioa %1,7 handitu da hiru hiruhilekoetan, betiere, 2013ko epe bereko datuekin alderatuta. Beraz, horrek erakusten du ez garela iritsi benetako hazkundearen eremura.

Gainera, esportazioak ez dira %3 hazi, betiere, abuztuko urte osoko datuak kontuan hartuta.

Lana eta enpleguari dagokionez, urriaren 31n ezagututako datuak kontuan hartuta, Gipuzkoan urte hasieran baino 815 langabetu gehiago daude eta, beraz, guztira 47.247 pertsona daude Lanbideren zerrendetan. Urriaren 31ko datuen arabera, 294.412 pertsona lanean ari dira eta gizarte-segurantzaz kotizatzen ari dira. Hortaz, 1.003 pertsona gehiago lanean daude, 2013ko abenduaren 31ko datuekin alderatuta. Gainera, ERE delakoentzat egonkortasun urtea izan da eta iraila arte Gipuzkoan 482 espediente egin dira eta, horiek, 4.976 pertsonen eragin diete.

Ez dugu estatistika datuetan gehiago sakondu nahi, izan ere, agerian gelditu da ez dela hazkunderik egon eta egoera hori gehiegi luzatzen ari dela. Hala ere, aro honetan Europako ekonomia ere ez da hazten hasi eta ez da





aurreikusten 2015ean haziko denik, izan ere, aurreikuspenen arabera Europako ekonomia ez da %1 haziko. Eta horrek eragiten digu, izan ere, gure ekonomia merkatu horien eboluzioaren mende dago.

Egoera horren ondorioz, inoiz baino beharrezkoa da krisiari aurre egiteko esfortzuak handitzea eta etorkizunerako produzio-azpiegitura hobetzeko plangintza egitea.

Horren harira, uste dugu ekonomia eta enplegua sustatzeko plangintzak lehenetsi behar direla, baina aitzitik, ez da horrelakorik egiten aurrekontu-proiektu honetan. Legealdiaren azkeneko urteotan ekonomia eta enplegua sustatzeko uneko aurrekontu-sailak egin dira, betiere, uneko egoera libratzeko negoziatio baten ondorioz. Egun, oposizioak bi foru arau onartu behar izan ditu ekonomia eta enplegua sustatzeko, izan ere foru gubarnua ez da gai izan eta ez du interesik izan plangintzarik egiteko. Nahiz eta oposizioak bi foru arau onartu dituen, aurrekontuen gaineko foru arauak ez du plangintzarik ekonomia-egoerari aurre egiteko.

Era berean, aurrekontuen gaineko foru arauak ez ditu kontuan hartu Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako ekonomia eta enplegua sustatzeko bi foru arauen ildoak. Eta ildo horiek lehenesten dute enpresen inbertsioa eta, zehatzago esanda, industria enpresak eta enpresa esportatzaileak. Hori lehenestearen ondorioz, bigarren fase batean, industria osagarrien jarduera eta industria enpresa horiei zerbitzu ematen dieten enpresen jarduera handituko da. Eta, ondoren, eta aurreko guztiaren ondorioz, kontsumoa sustatuko da. Beraz, hori da Gipuzkoako ekonomia sustatzeko estrategia nagusia, baina, horrelakorik ez da ageri aurrekontuen proiektuan. Eta hori guztia ez da bakarrik gaitasun eta eraginkortasun faltagatik, baizik eta, gehienbat Bilduk ez duelako borondate politikorik, agintzen duen erakundea krisiari aurre egiteko tresna eraginkorra izateko.

Hortaz, aurrekontuen proiektuak ez du ekonomiaren gaineko plangintza orokorrik: proiektuen gaineko sailek aldeztu aurretik pentsatu gabeko erabakiei erantzuten diete eta ez dute lehentasunik ezartzen. Beraz, hori guztia koordinazio ezaren adibidea da eta, hain zuzen ere, “Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko” departamentua eta “Lurralde Garapeneko” zuzendaritza – Diputatu Nagusiaren kabineteko zuzendaritza – lehian ari dira eta, ondorioz, helburu bereko aurrekontu-sailak egin dituzte, zentzurik gabe. Horrek erakusten du ez dagoela departamentuen arteko konfiantzarik eta, beraz, ez dagoela lidertzarik. Are gehiago: diru-laguntzak emateko aurrekontu-sail asko daude – batzuk diru-kopuru handiko aurrekontu-sailak –, baina zehaztu gabeko edo helbururik gabeko sailak dira. Beraz, foru gubarnua ez da gardena izaten ari.

Mugikortasun eta bide azpiegiturretan, onartezina da aurrekontuen proiektuak 8,9 milioi euroko aurrekontu-saila izatea Bidegirentzat, izan ere, foru sozietate publikoak ez du horren beharrik. Inork ez du zalantzan jartzen Bidegiren kaudimena, Gipuzkoako Foru Aldundiak izan ezik. Izan ere, Foru Aldundiak nahita jartzen du zalantzan



Bidegiren kaudimena eta helburua honakoa da: gaia politikoki erabiltzea bere aurkari politiko nagusiaren aurka; hain zuzen ere, EAJ-PNVren aurka.

Era berean, onartezina da Foru Aldundiak bere kontaktarekin jarraitzeko Bidegirentzako 8,9 milioi euroko aurrekontu-saila egitea, beharrik ez duenean. Hori arduragabekeria da eta, gainera, erakusten du erabakiaren arrazoia politikoa dela eta Foru Aldundia ez dela zorrotza izan. Izan ere, baztertu ditu Gipuzkoan dauden behar garrantzitsuak, hain zuzen ere, aurrekontu-sail handi horrekin aintzat hartu zitezkeen behar garrantzitsuak. Eta guztia, Foru Aldundiak bere estrategiari heltzeko, hain zuzen ere, aurkari politikoa erasotzeko estrategiari.

Gizarte politikan, ez gaude ados foru gobernuaren kudeaketa ereduarekin, baina batez ere, aldaketa atzeko atetik egin nahi duelako, betiere, dagokion tokian eztabaidatu gabe – hau da, Batzar Nagusietan eztabaidatu gabe –. Gaia salatzeko aukera izan dugu KABIA organismo autonomoa sortzeko foru arauaren izapidetze prozesuan. Gainera, arduratuta gaude, izan ere Foru Aldundiak bakarrik teorizatu nahi du eta alde batera uzten du erabiltzaileei ematen dien zerbitzua. Ildo beretik, arduratzen gaitu zaharren egoitzetako itxarote zerrenden handitzeak eta Foru Aldundiak ez diola horri behar den bezala aurre egiten.

Hondakinen gaineko kudeaketan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu proiektuan aurreikusi PIGRUG hondakin plangintzako inbertsioak, baina bai, ordea, hondakinen azpiegituren gaineko Lurraldeko arlo-plana (PTS delakoa) aldatzeko aurrekontu-sailak, nahiz eta 7/2008 Foru Arauaren kontra egiten duen. Beraz, horrek erakusten du foru gobernuaren hondakinen gaineko kudeaketa indarreko araudiaren kontrakoa dela: Zubietako balorizazio energetikoaren instalazioa kendu du aurrekontuen proiektutik eta Zestoako zabortege berria jarri du. Horrek guztiak eta zabortegei buruzko azken berriek agerian uzten dute, Foru Aldundia iruzurra egiten ari dela eta, ondorioz, Gipuzkoan hondakinen kudeaketa kaos batean bihurtu du.

Azkenik, aurrekontuen proiektuan ikusi ditugun plangintza-akats eta -hutsune nagusiak hain garrantzitsuak dira, non uste dugu ezinbestekoa dela aurrekontuen proiektua foru gobernuari itzultzea. Izan ere, proiektua 2015eko ekitaldirako bere plangintza politikoaren adibidea da eta, gainera, agerian uzten du foru gobernuaren gaitasun eta eraginkortasun eza. Era berean, agerian gelditu da, foru gobernuak ez duela borondaterik Gipuzkoako beharrei aurre egiteko eragile izateko eta, beraz, erakundea alderdikieriaz erabiltzen du eta, ondorioz, oztopo bihurtu da Gipuzkoako garapenarentzat.



Osoko Zuzenketa 2015eko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuen gaineko Foru Arau proiektuari..

Bozeramailearen sinadura / Firma portavoz
Markel Olano Arrese
EUSKO ABERTZALEAK – NACIONALISTAS VASCOS
BATZARKIDE TALDEA



Diru-lerro esanguratsuenak, berriak edo gehitzekoak:

- Euskaltzaindia: + 50.000 euro (guztira 185.132 euro)
- Elkarrekin Bonoak (bizikidetza programak garatzeko, Elrekin): 50.000 euro
- Eibar. GI-3950 errepidean eta N-634 errepidean proiektu berria. Irigarritasuna eta segurtasuna.: +75.000 euro
- Donostia International Physics Center (DIPC) Fellows: + 100.000 euro (guztira 260.000 euro)
- Basque Culinary Center: + 100.000 euro
- Bic Berrilan: +150.000 euro (guztira 420.000 euro)
- Irun eta Hondarribia lotzeko bidegorria: 250.000 euro
- Mondragon Unibertsitatea. Berrikuntza faktoria. Irun: +300.000 euro
- Adinekoen egoitzak + 300.000 euro (guztira 29.524.611 euro)
- Zarautzeko bariantea: +400.000 euro (guztira 500.000 euro)
- INBIOMED: + 500.000 euro
- Gipuzkoako zientzia eta teknologia parkea: + 648.000 euro
- Pasaiaiko biziberritzean lehentasunak finkatu ditugu:
 - 1. Eskalerillaseko igogailuaren proiektuaren idazketa eta exekuzioa.
 - 2. Herrerako geltokitik Azkuenera bitarteko sarbideak
 - 3. Lezo eta Donibané elkartzen dituen bidegorria.
 - 4. Molinao Parkeko 3. Faseko idazkera eta exekuzioa.
- Irungo hego saihezbidea egiten hasteko: + 1.000.000 euro. Hurrengo ekitaldietarako kreditu konpromisoekin. (15 M. euro guztira)
- Karlos I: + 1.000.000 euro. Hurrengo ekitaldietarako kreditu konpromisoekin. (5 M. euro guztira)
- Gipuzkoako sustapen ekonomikorako diru-lerro berezia: + 26.000.000 euro

Kentzekoak:

- BIDEGI: -8.900.000 euro (diru-lerro osoa kendu)
- Hiri Hondakinen Azpiegituren arloko LPS (PTS): - 17.500 euro (diru-lerro osoa kendu)

Agiri-mota / Tipo de documento:	Zatikako zuzenketa / Enmienda Parcial
Data / Fecha:	30/11/2014
Nori zuzendua / Dirigido a:	BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente:	Iñaki Egibar-Larrañaga
Batzarkide taldea / Grupo juntero:	Nacionalistas Vascos / Eusko Abertzaleak

IZENBURUA / TÍTULO:

Zatikako zuzenketa, Gipuzkoako Lurralde Historikorako 2015. urterako aurrekontu oroakorrak onartzen dituen Foru Arau Proiektua aldatzeko.

EA-NV

ZATIKAKO ZUZENKETA / ENMIENDA PARCIAL				
Marcar una X X bat jarri	☒	Diru-sarrera / Ingreso Gastua / Gasto Izena / Denominación	☐	Kentzea / Suprimir Aldatzea / Modificar Gehitzea / Aumentar
	☒		☐	Gutxitzea / Reducir Sortzea / Crear
Departamentua / Departamento		Sekzioa / Sección		Programa
06		10		110
Kapitulua / Capítulo	Artikulua Artículo	Kontzeptua Concepto	Azpikontzeptua Subconcepto	Azpiartida Subpartida
4	49	492	49200	02
Hasierako zenbatekoa Importe inicial	-ko zenbatekoan En un importe de		Bukaerako zenbatekoa Importe final	
	26.000.000		26.000.000	
Deskribapena / Descripción				
Partida extraordinaria para la promoción económica de Gipuzkoa LÍNEA SUBVENCIONABLE Cumplimiento de la norma foral 9/2014 de apoyo al relanzamiento económico de Gipuzkoa para facilitar la salida a la crisis. En proceso de recuperación y despegue de la actividad económica tiene su punto de arranque con las empresas industriales y principalmente exportadoras del territorio, tractoras del territorio; con una segunda fase de mayor actividad de la industria auxiliar y de los servicios relacionados con la industria; para pasar en una tercera etapa a movilizar los sectores de consumo. Para ello se deben fijar diez prioridades y ejes de actuación en los siguientes campos: 1.- Mejora de infraestructuras para facilitar la creación de nuevas empresas y el desarrollo de las existentes. 2.- Fomento del emprendizaje. 3.- Extensión de la cultura de la innovación. 4.- Apoyo a la internacionalización de la pequeña y mediana empresa guipuzcoana. 5.- Colaboración con el Gobierno Vasco en proyectos de salvación empresarial y/o de industrialización. 6.- Acciones específicas para facilitar el empleo de las personas emprendedoras y el inicio de la actividad empresarial. 7.- Acciones de promoción y mantenimiento del empleo. 8.- Empleo juvenil y de colectivos desfavorecidos por la crisis. 9.- Programa de apoyo profesional a planes de implantación y desarrollo de gestión medioambiental industrial. 10.- Acciones específicas para incorporar la inteligencia económica y competitiva en la actividad empresarial.				

Gordea /
Reservada

MOTIBAZIOA / MOTIVACIÓN:

Las partidas recogidas en el proyecto de presupuestos deben ser complementadas y ampliadas en aras al cumplimiento de la normativa foral vigente.

FINANTZAKETA / FINANCIACIÓN:

Departamentua / Departamento	Sekzioa / Sección	Programa	Kapitulua / Capítulo	Artikulua / Artículo	Kontzeptua / Concepto	Azpikontzeptua / Subconcepto	Azpiartida / Subpartida	Zenbatekoa / Importe
01	70	700	1	16	160	16001	00	13.856
01	70	700	2	22	220	22002	00	50.000